



EBAZPENA, 2007ko URRIAREN 24koa, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOAK MAISU-MAISTREN KIDEGOAN ETA HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO IRAKASLEENEAN SARTZEKO PRAKTIKA-FASEAREN KALIFIKAZIO-BATZORDEAK IZENDATZEN DIRA.

2007ko martxoaren 16ko Aginduak (martxoaren 23ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-Maistren Kidegora sartzeko hautaketa-prozesuen deialdia egiten duenak, 12. oinarrian xedatutakoaren arabera, irakaskuntza-praktikak egin behar dira aukeratutako izangaiak -egitetik salbuetsita daudenak ezik- irakasteko gai diren ala ez zehaztu ahal izateko.

Halaber, 2006ko martxoaren 9ko Aginduak (martxoaren 21eko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetara sartzeko hautaketa-probetarako deialdia egiten duenak, 14. oinarrian xedatutakoaren arabera, irakaskuntza-praktikak egin behar dira, egitetik salbuetsita ez dauden aukeratutako izangaiek irakasteko gai diren ala ez zehazteko. Ez gaitzat jotzen diren izangaiek izango dute hurrengo promozioko aukeratutakoekin sartzeko aukera, praktika-fasea behin bakarrik errepikatzeko. Kasu horretan, aukeratu den azkenaren hurrengo lekua beteko dute, sartu den promozioko espezialitatean.

Horretarako, bi ebazpen onetsi zituen Administrazio eta Zerbitzu sailburuordeak; haien bidez, bi hautaketa-prozedurei zegozkien praktiketako funtzionarioen praktika-fasea arautu zen. Ebazpenen arabera, beharrezkoa da kalifikazio-batzordeen osaera jendaurrean jartzea.

Hori dela-eta, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengo.- Maisu-Maistren eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetara sartzeko praktika-faserako kalifikazio-batzordeetako kideak izendatzea (I. ERANSKINA)

Bigarren.- Izendapen horien berri Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-oholetan jartzea, baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web orrian ere:
www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net



Hirugarren.- Kalifikazio-batzordeetako kideei Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan abstentzioari eta ezespenari buruz ezarritakoa aplikatuko zaie.

Laugarren.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, hilabeteko epean, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-oholetan argitara eman eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko urriaren 24a

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

ITZIAR GARAIZAR AGIRRE

**I. ERANSKINA****ARABA:**

Lehendakaria/Presidente: Pedro Luis Rodríguez Amestoy
Batzordekideak/Vocales: Ángeles Lacalle Mendoza
María Teresa Allende Blanco
María Victoria Odriozola Arregui
Fernando Casas Ruiz
Abelardo Jalón Ruiz de Infante

BIZKAIA:

Lehendakaria/Presidente: Pedro Macho Aguillo
Batzordekideak/Vocales: Virginia Margarita Baquedano Echanojauregui
Izaskun Arrizabalaga Barrencua
Ane Belaustegi Ibarluzea
Jesús M^a Eguidazu Duñabeitia
Carlos Michelena Izquierdo

GIPUZKOA A:

Lehendakaria/Presidente: Lorenzo Juan Fonseca
Batzordekideak/Vocales: Francisco Javier Balerdi Iraola
Ana M de la Inmaculada Gil Cruzado
Miren Karmele Múgica Juan
M^a Gemma Etxeberria Iparragirre
M^a Izaskun Arriet Burugain

GIPUZKOA B: HIZKUNTZA-ESKOLAK

Lehendakaria/Presidente: José Torres Casanueva
Batzordekideak/Vocales: Jose Luis Argómaniz Bengoechea
Rosa Arana Rico
Rafael Bergareche Urdampilleta
Santiago Garmendia Zapiain
María Victoria González Echeverría